



JOSU SANTESTERBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

Bezpera

OSO INTERESGARRIA Bereziartuak Saizarbitoriari egin eta ARGIAN argitaraturiko elkarrizketa. Kezka bakar batean sentitu naiz idazle donostiarraren guztiz kide. Transkribatuko dut: “Irudipena dut zerbaiten bezperan gaudela eta ez garela enteratzen. Edozer gauza gerta daiteke eta hemen gaude (...). Nire gaztetako galderetako bat da zer sentitzen ote zuen jendeak 1936ko uztailaren 17an, Donostian adibidez. Gerra bezperan tranbia gidaria bere lanera joan al zen normal? Baserritarra azokara normal? Ez al zuten ezer nabari?”

Nik irudipen berdina daukat duela denbora franko. Zerbaiten bezperan gaudelakoa, alegia. Zerbait larri, esan beharrik ez dago. 36koa bizi zuten batzuei egin izan diet nik inoiz Saizarbitoriak egiten duen galdera, eta beren erantzunetatik atera dudana inpresioa da, hala edo nola, denek espero zutela zerbait. Aurreikuspenak gertatuko zenaren larritasuna kalkulatzean ziren ezberdinak.

Orain, aldiz, gizartea lo dago. Txororen bat edo beste alde batera utzirik, inork ez bide du ezer larririk espero. Edo espero badu, ondo isilik dago. Baina, sinesteko da gainbehera ekonomiko honek ez duela maila bereko ondorio politikorik izango? Datuak kezagarriak dira, eta nahia-go nuke okertuko banintz, guztiz, baina jar gaitezen

okerrenean –niri bururatzen zaidan okerreanean, nork daki okerragoa ere ezin ote den izan–: Grezia euro-eskualdetik aterako ote den, Greziaren atzetik nortzuk joango diren, eta euro-eskualdea bera desagertuko ote den, duela urtebete alderantzizko utopia desagertzeko zela zirudien; orain, aldiz, enpresa handi guztiek, analista guztiek, ekonomialari guztiek aintzat hartzen duten posibilitatea da. Hau, aurreikuspenik txarrenak etengabe bete diren urte baten ondoren. Euro-eskualderik gabe, edo Espainia eurotik kanpo, nork galaraziko die gero eta indar handiago hartzen ari diren ultraeskuindarrei nahi dutena egitea? Estrasburgok ez behintzat. Bestetik, gogorarazi behar da zeintzuk diren ultraeskuindarren nahiak? Gogora ezazue programa: Autonomia estatua desagitea, zerbitzu publikoak pribatizatzea, alderdi politikoak ilegalizatzea, presoei bizi arteko kondenatza ezarri ahal izatea, eta abar. Horiek horrela, jeneral bibotedun galiziar txiki bat guztiaren buru izendatzea hurrengo pausu logikoa baizik ez litzateke izango. Edo

Gizartea lo dago. Txororen bat edo beste alde batera utzirik, inork ez bide du ezer larririk espero. Edo espero badu, ondo isilik dago. Baina sinesteko da gainbehera ekonomiko honek ez duela maila bereko ondorio politikorik izango?

agian ez litzateke beharrezkoa izango, aski litzatekeelako “beltzezko gizona”, murrizketarik ezagutzen ez duen *maderotegia* lagun duela.

Katastrofismoa? Hala bedi, zinez. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IRAKASLEA,
IDAZLEA

Pribilegiatuak

MAITE DUGU paradoxa, nonbait: gero eta okerrago gauden honetan, inoiz baino jende pribilegiatu gehiago omen dago bazterrotan. Hala adierazten dute hainbatek eta hainbatek, apaltasunetik, espanturik gabe, pribilegiatu sentitzen direla egunero lanera joateko aukera dutelako. Lana dutelako. Soldata dutelako.

Kontu aski ezaguna da perbertsioa hizkuntzatik hasten dela maiz, mundua izendatzeko moldetik; izan ere, orain lana duen pertsona pribilegiatua da, duela gutxi arte ez bezala. Ekonomiaren izorramendua tar-teko, pribilegio bilakatu berri da lanera joa-

tea. Bistan denez, lan egiteko pribilegioaren aferatxo hau enplegudunak enplegurik ez dutenen ondoan jartzetik sortua zaigu.

Eta oker gaude: soldatapeko langileak ez dira pribilegiatuak; izan autonomo, funtzionario edota enplegatu. Duintasun ekonomikoa ez da pribilegio, eskubide baizik; gu babesten –eta berresten– gaituzten lege idatziek esaten dutenaren arabera behintzat. Baina, paradoxa berriz ere ate joka, zuzen gabilta: eskubideak dituztenak pribilegiatuak dira. Gero eta gutxiago, alegia. ■

